# KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



## HIPI berrientzako hasierako prestakuntza

VITORIA-GASTEIZ,  2012ko IRAILAREN 24a, 25a eta 27a.

palacios@berrigasteiz.com

## Irailaren 24a

10:00-10:30
Aurkezpena eta sarrera.
JOSE MANUEL PALACIOS NAVARRO
Berritzegune Nagusiko Kulturarteko Hezkuntza Proiektuaren aholkularia.

10:30-11:30
Educación Intercultural: Marco teórico.
MIGUEL LOZA AGUIRRE.
Berritzegune Nagusiko HHIko Aholkularia.

11:30-12:00
Atsedenaldia
12:00-14:30

Bigarren hizkuntzaren ikas-irakaskuntza: marko teorikoa
BIOTZA PIKO.
Gasteizko Berritzeguneko aholkularia.

## Irailaren 25a

10:00-12:00
HIPlen lana: esku-hartze mota eta baliabideak. 1
IMA ORTEGA ABAD.
Ganivet LHIko HIPla

12:00 –12:30
Atsedenaldia

12:30-13:30
HIPlen lana: esku-hartze mota eta baliabideak. 2

13:30-14:30
Bigarren Hezkuntzako HIPlen lana.

JOSEBA IBARRA

Bigarren Hezkuntzako Irakaslea.

## Irailaren 27a

10:00-12:00
Diversidad lingüística en países de origen I
BILTZEN (Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzua)

12:00-12:30
Atsedenaldia

12:30 –14:30
Diversidad lingüística en países de origen II
BILTZEN

## HELBURUAK

Profil honen inguruan dauden zenbait ezaugarri ezagutu.

Kulturartekotasun ikuspegira hurbildu.

Bigarren hizkuntzaren ikas-irakaskuntzaren arlo teorikoa eta praktikoa gaurkotu.

HIPIen lanarekiko oinarrizko printzipioak argitu.

Jatorrizko aniztasun linguistikoa kontuan hartu.

**Hezkuntza sailburuordearen AGINDUAK, EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoei dei egiteko 2011/2012 ikasturtean Hezkuntza Berriztatzeko askotariko proiektuak egin ditzaten.**

**A – 1. KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEA: kulturartekotasunako dinamizatzaileak eta HIPIak**

**EBAZPENA HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA, 2011-2012 IKASTURTEA ANTOLATZEKO MODUARI BURUZKOA: HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN.**

# HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAKO IRAKASLEAK

## HIPIentzako deialdia: Helburuak

1. Euskal hezkuntza-sistemara iritsi berriak diren ikasleak sistema horretan **sar daitezen erraztea**, eskola inguruan lehenbailehen eta ahalik eta baldintza onenetan **integra daitezen lortzeko.**

2. Ikasle horiei **berariazko laguntza eskaintzea**, eta horretarako irakaskuntza/ikaskuntza prozesua garatzen ari den hizkuntzetan **hizkuntza- eta komunikazio- gaitasunak eskuratzeko laguntza emango da**, curriculumak egokituz.

# HIPIentzako deialdia: **FUNTZIOAK**

## 1.- HIZKUNTZA INDARTZEKO irakaslea den aldetik

- Hizkuntza indartzeko gelako **programazioa** egitea, ikasleen beharretara egokitua.
- Ikasle horientzat **banakako esku-hartze plana** egitea, tutorearen laguntzarekin.
- Ikasleak zein diren jakitea eta taldetan biltzea.
- **Material didaktikoak** aztertzea, antolatzea eta prestatzea, ikuspegi egokiak erabiliz.
- Dagokion **hezkuntza-errefortzua** ematea.

## 2.- Beste tutore baten ikasleen irakaslea den aldetik

- Gainerako irakasleekin **koordinatzeko prozesua** ezartzea, lanerako plan pertsonala prestatzeko eta plan horren gauzatzearen jarraipena egiteko.
- Iritsi berri diren ikasleen **harrera eta integrazioa erraztea**, haien gaitasunak garatu ditzaten laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasleen aurrerapenen eta ikaskuntzen **ebaluazioan parte hartzea.**
- **Materialak eta edukiak egokitzea**, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegia aintzat hartuta.

## 3.- Eskola-komunitate kidea den aldetik

- **Hizkuntzak irakasteko** jardueren plangintza egitea.
- Hezkuntza-prozesuan **kulturarteko ikuspegia sartzeko** jarduerak diseinatzea.

# HIPIentzako deialdia: banakako esku-hartzeak

Ikasle bakoitzak Banakako Esku-hartze Plan bat izango du, plan hori Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da, eta ikasle bakoitzaren egoerara egokituko da. Plan horretan honako hauek jasoko dira:

- Ikaslearen egungo **egoeraren zehaztapena**: norberaren datuak, hezkuntza-ibilbidea, eremu sozio-afektiboa, (nortasuna, gaitasunak) ikasketa-eremua (eremu instrumentalak).
- **Hizkuntzen** arloan landu beharreko **helburuak** eta, beharrezko izanez gero, **sozializazio-prozesua eta curriculumeko gainerako arloak**.
- **Ebaluazio-prozesua** ere sartuko da. Arloetan egiten diren curriculum-doiketak erreferentziatzat hartuko dira ebaluazio-prozesurako.
- Esku-hartze Plana zehaztea, besteak beste, **ikaslearen ordutegia, indartze-mota (ohiko gelan bertan edo kanpoan), ikaslearen irakasleen arteko koordinazioa eta planaren beraren ebaluazio** alderdiak ere zehaztuko dira.

# HIPIak eta prestakuntza

Kultur arteko hezkuntza Proiektuaren prestakuntza eskaintza:

- Hasierakoa: irailean.
- Etengabekoa: otsaileko jardunaldiak.

ZONALDEETAKO BERRITZEGUNEETAKO PRESTAKUNTZA ESKEINTZA:

- MINTEGIAK

# PROIEKTUAREN BERRITZEGUNEETAKO AHOLKULARIAK

## Araba

**A01 Gasteiz**

Amaia Sesma

Biotza Piko

**A02 Gasteiz**

Jesús Prieto Mendaza

## Bizkaia

**B01 Bilbo Abando**

Mª del Mar Pardo Castillejo (LH) / Mª Jesús Urrutia Larrea (BH)

**B02 Txurdinaga**

Itxaropen Zaballa

Rakel

**B03 Sestao**

Mª Jesús Torre Ortiz

**B04 Barakaldo**

Marily Yarritu Polancos

**B05 Ortuella**

Markos Bilbao Labado,

**B06 Basauri Galdakano**

Mª Luz Quiñonero Martínez

**B07 Getxo**

Rosario Franco Soria

**B08 Leioa**

??

**B09 Durango**

??

**B010 Gernika**

Juanma Iturralde Kildal

## Gipuzkoa

**G01 Donostia**

??

**02 Irun**

Maite Pardo Alonso

**G03 Eibar**

Maite Perez Garcia /Ana Maiztegi Gorostidi

**G04 Ordizia**

Ana Unamuno Zarraoa

**G05 Zarautz**

Jesús Mª de la Mota Juaniz

**G06 Lasarte**

Begoña Valiente Lekuona

# HIPIak eta baliabideak:

HIPIentzako berritzeguneetako orrialde interesagarri batzuk

BERRITZEGUNE NAGUSIA:
http://nagusia.berritzeguneak.net/eu/asesorias.php?asesoria=300&tipo=descargables

KITs

1.- IKASLE HELDU BERRIEN HARRERA ETA HASIERAKO MOMENTOAK.
2.- CURRICULUMA GARATZEKO ORIENTABIDEAK
3.- KULTURARTEKO HEZKUNTZARI BURUZKO BLOGAK ETA WEB ORRIALDEAK
4.- BESTELAKO HIZKUNTZA BALIABIDEAK :
5.- HIZKUNTZA ETA CURRICULUM
6.- ALDIZKARIAK ETA KOMIKIAK
7.- LIBURUAK ETA HIZTEGIAK
8.- BESTELAKOAK
9.- JOLASAK

# Orrialde interesagarri batzuk: ofizialak

www.hezkuntza.net

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif8/eu_2083/f8_e.html

## Berritzegunekoak

B08: http://hipiwiki.wikispaces.com

HIZKUNTZ INDARTZEA-REFUERZO LINGÜÍSTICO

KULTURARTEKOTASUNA-INTERCULTURALIDAD

B09: http://www.bgune09.net/formazioa/course/view.php?id=6

egin.

# Bigarren Hezkuntza. HIPlentzako dokumentuak.

https://sites.google.com/site/bihehipi/



## Sarrera: Ongi etorri Bigarren Hezkuntzako HIPlentzako site honetara.

---

*XXI. mendeko gizartearen ezaugarriak hezkuntza-munduan ere islatzen dira. Izan ere, gero eta gizarte anitzagoan bizi gara eta kultur aniztasuna ere agerian geratzen ari da eskolan. Baina eskola ezin da errealitatearen ispilu hutsa izan; gaur egungo gizartearen erronkei erantzuna emateko eragile kontziente eta aktiboa ere izan behar du. Gaurko eta biharko gizarte anitz honetan biziko diren pertsonak hezi behar ditu eskolak eta, eskola eragile bakarra ez den arren, gune ezin hobea da ekimenak diseinatu eta ikasle guztiak komunitateko partaide senti daitezen laguntzeko, berdintasunean, edozein dela beren familien jatorria eta gizarte-maila.*

*Azken batean, ikasle guztien eskola-arrakasta helbururantz jo behar du eskolak. Hori da ezaugarririk sakonena guztiontzako eskola aldarrikatzen denean. Eskola inklusibo horrek:*

- *Ohiko jarduera eta ezagupenak abiapuntutzat hartzen ditu, hobetzeari ekiteko.*
- *Ikasteko aukeratzat hartzen ditu desberdintasunak eta ez konpondu beharreko arazotzat.*
- *Ikasleen, familien eta irakasleen partaidetzarako eragozpenak aztertzen eta gainditzen saiatzen da.*
- *Ikasten laguntzeko, eskura dituen baliabideak eraginkortasunez erabiltzen ditu; izan ere, komunitatea bera ikasteko baliabide da.*
- *Praktikaren hizkuntza garatzen du.*
- *Hobekuntza-prozesuak abian jartzeko baldintzak sortzen ditu.*

*Azken urteotako mugimendu migrazaileak direla eta, aipatutako kultur aniztasunarekin batera aniztasun linguistikoa ere oso nabarmena da ikasleen artean. Gehienetan ikasle horiek beste hizkuntza batzuk dakartzate, baina ez dakizkite eskolako hizkuntzak. Argi dago, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatzea ezinbestekoa dela eskola-arrakasta lortzeko.*

*Bestalde, I. Vilak esaten duenez, ikasle etorri berrien harrerak eta integrazioak erabat baldintzatzen du hizkuntzen ikasketa:*

> *"El progreso del alumnado extranjero en el dominio de la lengua de la escuela responde principalmente a su* ***implicación activa*** *tanto en el aula de acogida como en el aula de ordinaria, lo cual requiere medidas desde los centros escolares para que quienes se incorporan al sistema educativo tengan un marco de acogida en el que puedan establecer amplias relaciones sociales con el resto del alumnado y el profesorado y crear vínculos*

Listo · Internet · 100%

EDUKIAK ULERGARRIAGOAK EGITEN
SIOP 1. ATALA: UNITATE PRESTAKETA
SIOP 2. ATALA: OINARRIAREN GARAPENA
SIOP 3. ATALA: INPUT ULERGARRIA
SIOP 4. ATALA: ESTRATEGIAK
SIOP 5. ATALA: ELKARRERAGINA
SIOP 6. ATALA: PRAKTIKA
SIOP 7. ATALA: PROZESUAREN KONTROLA
SIOP 8. ATALA: BIRPASO ETA EBALUAZIOA
Sitemap

# EDUKIAK ULERGARRIAGOAK EGITEN

**Oharra: SITE honetan aurkezten diren testuak Berriztatze Zuzendaritzako Kultur Arteko Hezkuntza proiektuarentzat Blanka Olaldek ekoiztu eta moldatu zituen.**

## 1. ZER DA SIOP EREDUA?

CREDE Zentroak (Center for Research on Education, Diversity and Excelence) 1996 urtean hasiera eman zion zazpi urteko irakaskuntza ikerketa proiektu bati Estatu Batuetan. Ikerketa horren ondorioz SIOP eredua (sheltered instruction observation protocol) garatu zen. Hasiera batean eredua behaketa tresna bezala sortu zen eta protokolo izena zuen. Echevarriak, Vogt-ek eta Short-ek sortu zuten zehazteko irakasleek "irakaskuntza babestua" (sheltered instruction) sartzen zuten haien klaseetan. "Irakaskuntza babestua" erabiltzeak esan nahi du ikasleek laguntza jasotzen dutela hizkuntza akademikoa garatzeko curriculumeko arloko gaiak garatzen duten bitartean. Ikasleei euskarria eskaintzen zaie irakaskuntza-teknika egokien bidez gaiak ulergarriago bihurtzeko.

SIOP ereduak edukiak eta hizkuntza irakasteko balio du eta bigarren hizkuntza edo irakas-hizkuntza ikasleak dauden edozein arlotako klaseetan erabili daiteke. Nahiz eta SIOP eredua ikasle hedu berriei (English Language Learners) kalitatezko hezkuntza ziurtatzeko garatua izan, ikasle guztien beharretara heltzeko eraginkorra izan daitekeela frogatu egin da. Eredu hau irakaskuntza hobetzeko beste programa batzuekin batera edo H2 ikasteko beste plangintza batzuekin batera ezartzea gomendatzen da (Harrera plana, hizkuntza indartzeko planak...). Batzuetan irakaskuntzan planteamendu,erreforma edo praktika berri askorekin bonbardatuak izaten gara. Claude Goldenberg-ek aipatzen duen bezala askotan falta dena koherentzia da edo plan orokor bat praktika on guztiak konbinatzeko eta eredu hau bat dator praktika onak bultzatu nahi dituen beste modeluekin.

Izan ere, SIOP planarekin estrategia zehatz batzuk erabiltzen dira edozein arlotako edukiak ikasleei modu ulergarri batean irakasteko eta aldi berean bigarren hizkuntzaren garapena bultzatzeko. Oinarritzat hartzen dira zenbait teoria ( Vygotsky, Krashen...) eta beste eredu pedagogiko batzuetan aurkitu ahal diren estrategiak erabiltzen dira (lankidetza, bigarren hizkuntzen metodologiak, instruzio psikologia...), baina arreta berezia jartzen da ikasleen bigarren hizkuntzaren garapen-beharretan eta haien beharra akademikoetan. Helburu hau lortzeko, besteak beste, SIOP ereduak arloko eduki-helburuak hizkuntza-helburuekin uztartzea gomendatzen du. Hizkuntza-helburuak sartzeak irakasleei aukera ematen die pentsatzeko nola nahi duten ikasleek unitatean zehar hizkuntza erabiltzea eta zeintzuk izango diren ikasleen hizkuntza beharrak unitatean zehar. Irakasleek hizkuntza ikuspuntutik aztertuko dute gaia.

Hala ere, SIOP eredua ez da ulertu behar soilik irakaskuntza-teknika gehigarri multzo bat bezala. Izan ere, eredu honek bai bigarren hizkuntza klaseei bai arloko klaseei zuzenduta dauden metodo eta estrategiak oinarritzat hartzen ditu eta aldi berean estrategia hauek osatzen ditu. Irakas-hizkuntzaren ikasleek ez dute bakarrik euskeraz/gaztelaniaz hiztegia edo gramatika ikasi behar baizik eta hizkuntza hori ere nola erabiltzen den irakasgaietan. "Hizkuntza akademiko" horren barruan ikasleek gauza izan behar dute testuak irakurtzeko eta ulertzeko, hipotesiak planteatzeko, ikuspuntuak argudiatzeko, oharrak hartzeko, besteak beste. Horregatik, ikasleek bai hizkuntza ezagupena eta bai eduki ezagupena batera erabili behar dituzte arloko atazak betetzeko. Ikasleek eredu honen barruan aukera anitzak dituzte hizkuntza trebetasun guztien integrazioaren bidez (mintzamena, irakurmena, idazmena, entzumena) ikasten ari direna aplikatzeko.

Kontuan hartzeko beste aspektu bat da kulturen eta pertsonen arabera hainbat ikasteko era, klaseko-jarrerrak eta hizkuntza erabiltzeko hainbat era daudela.

Hizkuntza eta edukiak uztartzen duen klasea eta kontzientzia soziokulturala sartzen duena oso leku ona da irakas-hizkuntza ikasleei aldamio-egitura eskaintzeko. Vygotsky eta beste autore batzuk (Tharp et al., 2000; Vygotsky, 1978; Wertsch,1991) esaten duten bezala, ikasleen irakas-

Listo Internet 100%

Blogak

B06: http://kulturartekotasunab06.wordpress.com/

G02: http://irungohipiak.blogspot.com/

G05: http://sites.google.com/site/ikasleetorriberriak/



# ESKERRIK ASKO!

palacios@berrigasteiz.com

**“Es con este espíritu con el que me gustaría decirles, primero a los unos: cuanto más os impregnéis de la cultura del país de acogida, tanto más podréis impregnarlo de la vuestra; y después a los otros: cuanto más perciba un inmigrado que se respeta su cultura de origen, más se abrirá a la cultura del país de acogida.”**

**(Amin Maalouf “Identidades asesinas”)**